

Andoaingo I. Lanbide Heziketako azoka izango da martxoaren 29an

Gaur aurkeztu da ofizialki martxoaren 29an (larunbata) egingo den Andoaingo I. Lanbide Heziketako azoka. La Salle Berrozpe ikastetxeak, Leizaran Institutuak eta Zine eta Bideo Eskolak lehen aldiz antolatu dute Andoainen mota horretako azoka bat. Hiru ikastetxeetako ordezkariak 10:00etatik 13:00etara bilduko dira Plaza Morean, eta bakoitzak bere eskolaren eta aurtengo heziketako zikloen eskaintza aurkeztuko du. Interesa duen orok hurbiletik ezagutu ahal izango du egindako lana, eta 12:00etan, Andoaingo alkate Andoni Alvarezek eta ikastetxe bakoitzeko arduradunek hitzaldi txiki bat emango dute, eskaintzen duten lanbide-heziketari eta lan-metodologiari buruzko informazio zehatzagoa emateko.

La Salle Berrozpe ikastetxe euskalduna eta inklusiboa da, ikasle guztiei prestakuntza integrala eskaintzen diena, ikasleekiko, familiekiko eta enpresekiko hurbiltasuna zainduz, eta 3 ardatz nagusitan oinarritzen da bere heziketa-eredua: kidetza, berrikuntza eta iraunkortasuna. La Salle Berrozpe ikastetxearen eskaintza akademiko zabalaren barruan, lanbide-heziketako zikloak nabarmendu nahi dira azoka honetan (oinarrizko mailakoak, erdi mailakoak eta goi mailakoak). Hiru arlotako heziketa-zikloak eskaintzen dira La Salle Berrozpen: mekanika, elektronika eta administrazioa.

Leizaran Institutua, berriz, Andoaingo ikastetxe publikoa da, eta DBH, Batxilergoa eta Lanbide Heziketako zikloak eskaintzen dira. Gipuzkoan, ikastetxe aitzindaria da lanbide-heziketan: 20 urteko ibilbide eta esperientzia luzea du. Hain zuzen, lanbide-heziketako bi ziklo nagusi eskaintzen dira: gizarteratzea (goi mailako zikloa), euskaraz nahiz gazteleraz egin daitekeena, eta arreta (erdi mailako zikloa), euskaraz eskaintzen dena.

Azkenik, ESCIVI zinema eta bideo arloko Euskal Herriko eskola nagusia da. Bideo-eskolaren eskaintza akademikoak lanbide-heziketako programa sorta zabala biltzen du: irudiari eta soinuari buruzko goi-mailako eta erdi-mailako zikloetatik hasi, eta ekoizpen zinematografikoan eta ikus-entzunezkoen hainbat arlotan espezializatutako master eta ikastaroetara arte. Irudi eta soinu maila guztiak eskaintzen dituen Euskadiko erakunde bakarra izateagatik nabarmentzen da eskola. Horri esker, ikasleei prestakuntza integrala eta errealista eskaintzen die, baita ekoizpen zinematografiko profesionala ere.

Andoain, 2025eko martxoak 21

Andoain acogerá el 29 de marzo la I Feria de Formación Profesional

Hoy se ha presentado oficialmente la I Feria de Formación Profesional de Andoain, que tendrá lugar el sábado 29 de marzo. Esta iniciativa organizada por el colegio La Salle Berrozpe, Leizaran Institutua y la Escuela de Cine y Vídeo, será la feria pionera de este tipo en Andoain. Representantes de los tres centros se reunirán entre las 10:00 y la 13:00 en Plaza morea, donde cada uno presentará su centro y la oferta de ciclos formativos de este año para que todo aquel que esté interesado pueda conocerlos más de cerca. Además, a las 12:00 del mediodía, el alcalde de Andoain, Andoni Álvarez, y los responsables de cada centro harán una pequeña intervención en la que ofrecerán información más detallada sobre la formación profesional que imparten y su metodología de trabajo.

Por un lado, La Salle Berrozpe es un centro educativo euskaldun e inclusivo que ofrece una formación integral, velando por la cercanía con el alumnado, las familias y las empresas, y cuya formación se basa en 3 ejes principales: Participación, innovación y sostenibilidad. Dentro de su amplia oferta académica, nos gustaría destacar en esta ocasión los ciclos de formación profesional (nivel básico, grado medio y grado superior). Estos se pueden dividir en 3 ámbitos principales: Mecánica, electrónica y administración.

**Andoaingo
Udala**



Por su parte, Leizaran Institutua es una escuela pública de Andoain que ofrece ESO, Bachillerato y ciclos de Formación Profesional. En Gipuzkoa es el centro pionero en Formación Profesional y cuenta con una larga trayectoria y experiencia de 20 años. En el marco de esta área, ofrecen dos ciclos principales: Inserción Social (ciclo superior), impartido tanto en euskera como en castellano, y Atención (grado medio), únicamente en euskera.

Por último, ESCIVI es la escuela líder de cine y vídeo de Euskal Herria. Su oferta académica incluye una amplia gama de programas de formación profesional, desde grados superiores y grado medio en Imagen y Sonido, hasta masters y cursos especializados en diversas áreas de la producción cinematográfica y audiovisual. Destacan por ser la única institución en el País Vasco que ofrece todos los grados de Imagen y Sonido, garantizando al alumnado una formación integral y realista, al igual que ocurre en una producción cinematográfica profesional.

Andoain, 21 de marzo de 2025